

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Oso gogorra, baina beharrezkoa



Amaia Alvarez Uribe

Svetlana Aleksievitx kazetari bielorrusiarren lana Iker Santxok itzuli eta Elkarrek argitaratu zuen iaz. 2015ean Nobel Saria lortu zuen egileak. Ia milioi bat emakume sobietarrek parte hartu zuten II. Mundu Gerran, 1941etik 1945era, eta haien ahotsak, haien gerrarekiko bizipenak jaso ditu orriotan.

100 bizitza historia 300 orrialdeko errepor-tajejan dugu. Gerra horren memoria pelikula estatubatuarretan eta eleberri europarretan ezagutu ditugu nagusiki, protagonistak gizon-enezkoak, juduen eta alemaniarren ingurukoak. Oraingoan aldiz, Sobietar Batasuneko emakume soldaduak dira protagonista.

Izugarrikeria sorta bat topatuko dugu liburu honetan, baita pasarte hunkigarriak ere. Lehen atalean emakumeen gerraren historia idatzi izan nahi duela dio, "ezkutuan geratu den mundu oso bat ezagutzera emateko". Bere asmoa gerran dagoen gizakiari buruz idaztea izan da, sentimenduz eta arimari buruz, ez ideia handiei buruz.

Hurrengo 16 ataletan titularrek aurkeztuko dizkigute mintzagaiak: memoria, gizon-emakumeen artekoak, gerrako eta gerratik kanpoko ni-ak, gerra bera eta gerra ostea. Zer da gerra bat bizitzea? Historia hau ere kontatu behar da, ikuspegi desberdinetatik begiraturaz. Izan ere, aurreko belaunaldien bizitza nolakoa zen ezagutzeko oso lan baliagarria da.

Gizon eta emakumeen artekoak maiz agertzen dira. Edertasuna, goxotasuna eta zaintza "femeninoak" faltan sumatzen dituzte batzuek zein besteek frontean. Elkarri neba-arreba deitzen


Gerrak ez du emakume aurpegirik

SVETLANA ALEKSIEVITX

Itzultzailea: Iker Sancho

Elkar, 2017

*Svetlana Aleksandrovna
Aleksievitx idazle bielorrusiarra
(Stanislav, 1948).*



zioten eta emakume soldaduek gizonen bizitza egin zutela adierazten dute.

Gerran bizirauteko erdi-gizaki erdi-animalia izan behar duzula diote eta beste logika batekin pentsatzen duzula. Dena beltza eta gorria zen, zikina eta odola. Neguko hotza eta hezur hautsien hotsa. Hala ere, bizitzan funtsezkoa dena deskubritu ei da bertan. Irribarreak, zigarroak, elkarrizketak.

Hildakoen artean bizitzen ohitu zirenerako "garaipena" heldu zen eta bizitzaren beldur izaten hasi ziren. "Herriaren etsai" bihurtu ziren batzuk eta gaixotasunak agertzen hasi ziren. Gizonek emakumeak bertan behera utzi zituzten. Ez zituzten aintzat hartu 40 urte pasatu arte.

Liburua oso gogorra da, baina beharrezkoa. Gertatu zena ez ahazteko. Idealak desmitifikatzeko. Emakumeak ikusgarri egiteko. Jendeak egoera lazgarrietara egoitzeko moduez gogoetatzeko. ■